# muniversitas

MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN ALDIZKARIA

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

37. ZENBAKIA. 2017




ELKARRIZKETA | **Mikel Mesonero.** Coordinador de Generación y Desarrollo de Talento en Gestión en la facultad de Enpresagintza

## “La atracción de personas con talento es un elemento clave para la propia competitividad de las empresas”




Son las pequeñas cosas lo que más importan. Hemos explorado el mundo y seleccionado los mejores materiales naturales para crear nuestras gafas de sol de madera y acetato.
El proceso de fabricación artesanal de IxiWood garantiza la atención al detalle.

**Muy pronto nueva colección y nuevos productos.**



Wood Glasses



Acetate Glasses



Wood Handbags

IXI WOOD

ixiwood.com

muniversitas
37. ZENBAKIA. 2017

**Mikel Mesonero, coordinador de Generación y Desarrollo de talento en Gestión**

La captación y atracción de talento ocupa a Enpresagintza que desarrolla su propuesta de valor en dos grandes ámbitos: el emprendimiento y la gestión empresarial. Por un lado, Enpresagintza quiere captar y atraer talento. Por otro, quiere desarrollar talento entre profesionales que ya están en el mundo empresarial.



## AURKIBIDEA


03 Editoriala

04 Berriak

10 Erreportajea

13 Iritzia

14 Elkarrizketa

16 Unibertsitatea &enpresa

20 Komunitatea

23 Agenda


### Gerardo Tome, MUtelebistako aurkezle berria

Erronka dotorea eta ikasteko aukera bikaina izango ditu Ibarran jaiotako 19 urteko gazteak aurtengo ikasturtean. Hala ere, gogorra izaten ari da Gerardo Tomerentzat egokitzapena MUtelebistara. Sortu zenetik, Mondragon Unibertsitatearen telebistak estilo zehatza landu du eta estilo horretara moldatu beharra dauka Tomek, bai gauzak kontatzeko eran zein edukien tratamenduan. Gerardo Tome elkarrizketatzeko aukera izan du MUniversitas aldizkariak.

muniversitas
(23. p.k.) ARRASATE 20500 (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 21 85 | Faxa: 943 71 21 93
E-posta: info@mondragon.edu
Koordinatzailea: Arteman Komunikazioa
Erredakzio kontseilua:
Edurne Galindez, Goio Arana, Susana Azpilikueta,
Edorta Mendieta, Idoia Peñakoba eta Olatz De Solaeche.
Laguntzaileak:
Tirada 5.965 ale | Lege gordailua SS-1360/05
Diseinua eta publizitatea: Arteman Komunikazioa
Argazkiak: Arteman Komunikazioa
Moldiztegia: MCC Graphics

# BERDINTASUNA, GUZTION KONPROMISOA

Berdintasuna da PLOTINA proiektuaren itzalean ageri den hitza. Berdintasuna kontzeptu orokor eta konkretu gisa. Hitza baino helburua. Berdintasuna Mondragon Unibertsitatearen funtzionamendu sistemara txertatua, alderdi guztietan transbertsala: ikerkuntza eta berrikuntza jardueran, kudeaketa karguetan, irakasle curriculumean, kontratzazio eta promozio prozezuetan… Berdintasuna izan behar da, datozen urteotan, indarrez bultzatuko den lan-esparruetako bat. Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna arlo guztietara aplikatuz. Egia da, bai, Mondragon Unibertsitateak izaera kooperatiboa duela, organizazio kooperatiboetan berdintasuna beste erakunde batzuetan baino gehiago garatu dela, baina egia da, baita ere, asko dagoela oraindik ere egiteko. Berdintasunaren arloan garatzen ari den proiektu bat da PLOTINA, Europa mailakoa, eta lau urteren bueltan garatuko da. 2016an abiatu zen eta 2020an amaituko da. Mondragon Unibertsitatea da proiektua garatzeko ardura duen erakundeetako bat, Italiako, Britania Handiko, Esloveniako, Portugaleko eta Turkiako beste bost unibertsitaterekin batera. Gainera, Elhuyar aholkularitza enpresak ere parte hartuko du kontsortzioan eta Italiako Centro Studi Progetto Donna erakundeak eta Austriako Zentrum ebaluatzaileak ere. Plotinak bi asmo nagusi ditu; batetik garatu nahi du berdintasun politika orokorra erakundeentzat, parte-hartzaileek inplementatu dezaten euren erakundeetan. Eta aldi berean, eredua sortu nahi da, bermea eskainiko duen eredua.

*“Berdintasuna Mondragon Unibertsitatearen funtzionamendu sistemara txertatua”.*

Hasi besterik ez da egin, eta seguru gure aldizkarian behin baino gehiagotan aipatuko dugula PLOTINA proiektua etorkizunean. Mondragon Unibertsitatearen baitan sortu den talde eragileak lan handia dauka, handia inportantea delako eta handia, gauza asko daudelako egiteko.






Enrique Cat pertenece a la primera promoción del grado LEINN.

# UN LEINNER EN FORBES

ENRIQUE CAT, COFUNDADOR DE NOSTOC BIOTECH, HA SIDO RECONOCIDO POR FORBES COMO UNO DE LOS 30 TALENTOS MÁS PROMETEDORES DE ESPAÑA CON MENOS DE 30 AÑOS. ENRIQUE CAT PERTENECE A LA PRIMERA PROMOCIÓN DEL GRADO LEINN (LIDERAZGO, EMPRENDIMIENTO E INNOVACIÓN) Y HA SIDO ELEGIDO COMO UNO DE LOS 30 JÓVENES MÁS INNOVADORES E INSPIRADORES DEL ESTADO.

La revista Forbes elabora por primera vez en España el listado que distingue a los 30 jóvenes más innovadores e inspiradores que tienen como misión cambiar el mundo. Cat quiere mejorar el mundo impulsando una agricultura sin pesticidas químicos. Comenzó Biología, y lo dejó para continuar su formación en Teamlabs, laboratorio de Madrid de Mondragon Team Academy (MTA), siendo de los primeros que realizó el grado LEINN con un modelo de aprendizaje que forma a jóvenes para emprender en equipo en proyectos y empresas reales, con una perspectiva de ciudadanos globales descubriendo su capacidad de cambio e impacto social.

Mientras realizaba LEINN, creó Nostoc Biotech en 2014 junto a Guillermo Herrero, otro emprendedor con más de 15 años de experiencia en proyectos de agricultura. Hoy trabajan en Nostoc un equipo de 10 personas y han creado una gama de productos ecológicos únicos, basados en comunidades de microorganismos vivos procedentes del humus de lombriz, muy efectivos contra plagas y enfermedades de enorme impacto económico, como la yesca, araña roja, nematodos... Sus abonos y soluciones de fertilización y protección sin químicos ya se utilizan en todo el Estado, con gran penetración en Almería, Granada y Huelva. También están desarrollando un e-commerce para adquirir sus productos en formatos pequeños, pensado para pequeños huertos y jardines.

## Recorrido con reconocimiento




Enrique Cat y su proyecto Nostoc Biotech han obtenido ya varios premios y reconocimientos a lo largo de su recorrido. Enrique Cat ha sido en 2017 el ganador en España de la Global Student Entrepreneur Awards (GSEA). Asimismo, la empresa Nostoc Biotech fue seleccionada para participar en el programa CRECES de UNLTD, prestigiosa organización de fomento del emprendimiento social. Y en 2016, Nostoc Biotech fue una de las tres primeras empresas que obtuvo financiación, 250.000 euros, en la Bolsa Social, la primera plataforma española de equity crowdfunding.

# Eskoriatzan egin da ikasturte hasiera ekitaldia

IREKIERA EKITALDIAN VICENTE ATXA ERREKTOREAK EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN LANKIDETZA EREDU PUBLIKO-PRIBATUA SAKONAGO LANTZEKO BEHARRA AZPIMARRATU DU.




Argazkian, Mikel Álvarez, Vicente Atxa, Iñigo Urkullu, Cristina Uriarte eta Idoa Peñakoba.

**Mondragon Unibertsiatea** | Mondragon Unibertsitatearen 2017-2018ko ikasturtea irekitzeko ekitaldia, aurten bere 40.urteurrena bete duen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen Eskoriatzako campusean ospatu zen. Ekitaldiak Mondragon Unibertsitateko Errektore Vicente Atxa eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakari Iñigo Urkullu izan zituen buru, azken honek ekitaldiaren itxiera eginez.

> Eugenio Astigarraga doktoreak "Irakasle analogikoa gizarte digitalean" hitzaldia eskaini zuen.

Mondragon Unibertsitateko errektore Vicente Atxak unibertsitate nahiz gizarte gisa, goi mailako hezkuntzan inbertsio handiagoa egiteko beharra azpimarratu zuen, etorkizuneko Euskadi eraikitzeko. Errektoreak zuzentzen duen unibertsitatearen 2017-2020 Plan Estrategikoaren hiru erronka nagusietan oinarritu zuen bere hitzaldia: Unibertsitateko hezkuntza-berrikuntzan liderra izatea, unibertsitatea nazioartera zabaltzea eta ikerkuntzak ahalik eta eraginik handiena izatea enpresetan eta gizartean.

### Erreferentziazko unibertsitatea

Bigarren erronka estrategiko bezala, Euskadik, maila globalean lehiatuz tokiko enplegua sorraraziko duen enpresa-ehuna behar duela zehaztu zuen. "Horretarako, nazioarteko esperientzia duen tokiko talentua behar dugu, baita Euskadik erakarriko duen nazioarteko talentua ere", nazioarteko ikasleak gradu, graduondo eta doktorego programetara erakartzeko gaitasuna izanik "aukera profesionalez betetako mundu bat irekitzen diegulako nazioarteratutako enpresa lehiakorretan", adierazi zuen Atxak.

Hirugarren erronkari dagokionean, ikerketaren hobekuntza eta transferentzia aipatu zituen, Euskadiko enpresa eta erakundeetan izan dezaketen inpaktua kontutan izanik "eragiteak esan nahi du, enpresei lehiakorragoak izaten laguntzea. Hau da, nazioarteko merkatu batean, gure enpresak onenen artean egotea da gure herrialdearen erronka".

Mondragon Unibertsitateak erreferente izaten jarraitu nahi du eremu guzti horietan, eta horrek ezinbestekotzat dauka ikerketa, berrikuntza ez geratzea eta beti aurretik joatea. Hori lortzeko berriz, Errektoreak esan zuen bezala, "goi mailako hezkuntzan inbertsioa handitzea ezinbestekoa da, etorkizuneko Euskadi eraikitzeko, hau da, Euskadi industriala, pertsona trebatuak dituena eta balio erantsi handiko enplegua eskaintzen duena izateko".

Errektorearen hitzen aurretik, hitzaldi nagusia Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakasle eta ikerlaria den Eugenio Astigarraga doktoreak eskaini zuen. Hitzaldiaren izenburua, "Irakasle analogikoa gizarte digitalean".

# Eskola and Ingeteam provide comprehensive tools for a more efficient and reliable design of DC distribution grids

THE INTEREST ON DC DISTRIBUTION GRIDS, DC POWER SYSTEMS OR DC MICRO-GRIDS HAS INCREASED DURING THE LAST YEARS THANKS TO THE TECHNOLOGICAL EVOLUTION OF POWER SEMICONDUCTORS, THE ESTABLISHMENT OF RELIABLE POWER CONVERTER TOPOLOGIES AND THE APPEARANCE OF COST EFFECTIVE PROTECTIVE DEVICES, AMONGST OTHER FACTORS.



Gonzalo Abad in the conference in Warsaw (Poland)

**Goi Eskola Politeknikoa** | In many applications, areas and scenarios using innovative DC grids rather than traditional AC grids can produce several benefits in terms of cost, energy consumption, efficiency, volume, reliability and safety.

Researchers from Mondragon Unibertsitatea and Ingeteam offered a tutorial at the European Conference on Power Electronics and Applications (EPE 2017 ECCE Europe), held in Warsaw, Poland, on the 11th of September, whose main objective was to develop global analysis methods and global simulation tools that will enable to optimally and cost effectively design and operate efficient, safe and reliable DC distribution grid systems.

The tutorial studies this issue with a general perspective, but also applies the developed methods and analysis on a real and specific scenario: DC distribution grids for marine vessels. The tutorial showed that combining specialized simulation component libraries (such as Matlab/SimulinkTM & SimPower SystemsTM or any equivalent), together with self-developed analytical models and tools, results in an effective and holistic working approach for designers in general and specially for power electronics engineers.

## Basoko landareei buruzko sinposioa

BASQUE CULINARY CENTERREK ANTOLATUTAKO SINPOSIOAN BASOKO LANDAREEK DUTEN BALIO GASTRONOMIKOA AZTERTUKO DUTE



Laborategiak basoko landareei buruzko gida osatzen dihardu.

**Basque Culinary Center - Facultad de ciencias gastronómicas |** Sukaldean gero eta gehiago erabiltzen dira basoko landareak, balio gastronomiko eta sendagarri handia dutelako. Testuinguru horretan, BC CulinaryLABek, Basque Culinary Centerreko gastronomia ikerkuntza laborategiak, basoko landareei eta horien balio gastronomikoari buruzko sinposioa antolatu du azaroaren 22 eta 23rako; topaketa akademiko honek alor zientifikoa, botanikoa eta gastronomikoa batuko ditu.

Sukaldaritzako profesionalentzat gero eta garrantzitsuagoa da landare hauen azterketa; horregatik BCulinaryLAB horiek sakon ikertzen dabil. Gaur egun laborategi honek Espainiako basoko landareen inguruko gida zehatza lantzen dihardu, datorren urtean argitaratuko duena, eta lan horretan jasota egongo dira 300 landare baino gehiagoren balio gastronomikoak.

San Sebastián Gastronomika topaketan, BCulinaryLAB basoko landareen inguruan egiten dabilen lana aurkeztu zuten; horren ardura izan zuten Diego Pradok eta Basque Culinary Centerreko zuzendari nagusi Joxe Mari Aizegak. Aurkezpen horretan nabarmendu zuten landare hauek Neandertal garaitik gaur egunera arte gizateriaren historian izan duten garrantzia, bai elikagai zein sendagai gisa.

## Data-Driven Anomaly Detection in Industrial Networks

**Tesis |** El trabajo de Mikel Iturbe, Sobresaliente mención CumLaude, consiste en analizar los sistemas de control industrial, responsables de un gran número de procesos físicos, incluyendo aquellos que pertenecen a infraestructuras críticas.

Estos sistemas monitorizan el comportamiento de las redes industriales y sistemas de control industrial para detectar eventos anómalos, sean conocidos o desconocidos. No obstante, los sistemas de detección de anomalías no han evolucionado al mismo ritmo y no están diseñados para abordar la complejidad de datos actual. Esta tesis aspira a llenar ese vacío con la propuesta, por un lado, de un sistema visual de monitorización de red y, por otro lado, de un sistema de detección de anomalías multivariante, capaz de trabajar a gran escala y con datos heterogéneos.

## ONEIÑ, REPARTO DE ALIMENTOS EN TAQUILLAS

**Facultad de Empresariales |** Un grupo de emprendedores de LEINN ha puesto en marcha en Eibar un negocio consistente en el reparto de productos alimenticios 'Made in Eibar', para su recogida mediante un sistema de taquillas, acompañado de un asesoramiento nutricional personalizado. La caja de los alimentos está refrigerada para mantener la temperatura, con un plazo de recogida de 24 horas.

Para la entrega de los alimentos y comidas han llegado a un acuerdo con la empresa Hapiick que dispone de unas taquillas inteligentes en diversos puntos de Eibar, donde una vez conseguido un código de acceso se podrá recoger la caja de consumo semanal con sus recetas. Los inscritos en Oneiñ pasarán por un estudio del perfil de sus necesidades e intereses alimenticios e irán recibiendo semanalmente la caja con los alimentos. Deberán pagar a la semana una cuota de 75 euros, recibiendo a cambio productos para el desayuno, la comida y la cena.




La nutrcionista Ane Campos junto a emprendedores de LEINN.

## Ikus-entzunezko ikasleak Zinemaldian epaimahaikide

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea |** Ikus-entzunezko Komunikazioa Graduko bost ikaslek osatu dute Donostiako 65. Zinemaldiko Ikasleen Nazioarteko XVI. Topaketaren epaimahaia. Lehiaketa horretan parte hartzen dute nazioartetik etorritako ikasleek egindako dozenaka film laburrek. Iban del Campo irakasleak koordinatuta, Graduko 4. mailako honako ikasleek osatu dute epaimahaia: Andoni Imaz, Saioa Murua, Miryam Lizarralde, Imanol Eppherre eta Ibai Zabala (argazkian, ezkerretik eskubira). Epaimahaikideen ardura izan da, beste batzuen artean, 5.000 euroko saria ematea aurkeztutako film labur berritzaileenari.

Film laburren emanaldiez gain, itzal handiko zinegileen master class-ek eta hitzaldiek osatu dute Ikasleen Nazioarteko XVI. Topaketako bost eguneko egitaraua.



4. mailako ikasleak Iban del Campo irakasleak koordinatuta.

# Haur eta gazte liburu onenen bilduma

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEKO HAUR LIBURU MINTEGIAK SAREAN JARRI DU 2016. URTEKO HAUR ETA GAZTE LITERATURA IRAKUR GIDA. LIBURUXKAK 47 ORRI DITU ETA, BERTAN, UME ETA GAZTEEI ZUZENDUTAKO 177 LIBURU AZTERTU ETA SAILKATU DITUZTE. 1990. URTETIK HASITA, URTERO ARGITARATZEN DUTE GIDA.

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea |** Gidaren azken zenbakia egiteko, haur eta gazte literaturarekin lotutako 14 lagunek hartu dute parte, tartean, liburuzainak, eskoletako irakasleak eta fakultateko adituak. Proiektuaren arduradunek dioten moduan, 2016ko gida "talde baten lan jarraituaren eta liburu askoren irakurketaren emaitza da. Guraso, irakasle eta bibliotekarientzat lagungarri izan nahi du". Lan egiteko moduari dagokionez, zera diote: "Liburuen zerrenda orokorraren ondoren sailkapen bat egiten da: liburu gomendagarriak eta oso gomendagarriak. Azken horiei erreseina bat gehitzen zaie".

Mintegian irakurri dituzten lan horiek guztiak: "liburu gomendagarriak" eta "liburu oso gomendagarriak" bezala sailkatzen dituzte.

Adinka antolatuta, bi modutan sailkatzen dituzte mintegian irakurri dituzten lan horiek guztiak: "liburu gomendagarriak" eta "liburu oso gomendagarriak".

1990. urtean hasi ziren Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Haur Liburu Mintegiko kideak literatura gida kaleratzen eta, 2001. urtea geroztik, unibertsitateko webgunean daude denon eskura.




Irakur gidaren azala.

# Basque Culinary Center, un proyecto de referencia internacional

**Basque Culinary Center - Facultad de ciencias gastronómicas |** Las aulas y cocinas de Basque Culinary Center comienzan de nuevo la actividad tras las vacaciones de verano y los estudiantes de grado del centro han iniciado sus clases. Un total de 400 alumnos de todo el mundo estudiarán alguno de los cuatro cursos del Grado en Gastronomía y Artes Culinarias de Basque Culinary Center (cien por curso), de ellos, un 25% son extranjeros.

Los nuevos alumnos de grado que comienzan sus estudios han sido seleccionados tras pasar un proceso de selección compuesto por pruebas de inglés, expediente académico y un test de aptitudes y capacidades personales. Los alumnos internacionales proceden de todos los rincones del mundo. Una radiografía del centenar de nuevos alumnos de primero revela que 68 son nacionales y 32 son extranjeros



Alumnos de primer curso, procedentes de 68 nacionalidades.



Juan Ignacio Igartua, del grupo de investigación de Innovación y Emprendizaje de Mondragon Unibertsitatea, explica los objetivos del nodo 'Fabricación Avanzada'

# El proyecto TransferINN prevé ofrecer servicios de innovación a 150 empresas

**Escuela Politécnica Superior |** A finales de septiembre tuvo lugar en Ariège (Francia) la tercera reunión del proyecto europeo TransferINN, cuyo objetivo es reforzar la integración económica y social de la zona transfronteriza España-Francia-Andorra mediante la transferencia del conocimiento existente en las universidades, centros de formación y centros tecnológicos a las Pequeñas y Medianas Empresas (PYME) y a los emprendedores para el desarrollo de actividades económicas, sociales y medioambientales.

El principal objetivo para los próximos 6 meses es poner en marcha los 4 grupos de trabajo alrededor de los que se ha estructurado el proyecto y empezar a establecer proyectos innovadores con las empresas. Estos cuatro nodos se han organizado sobre los siguientes temas: Fabricación Avanzada –en el que participa la Escuela Politécnica Superior de Mondragon Unibertsitatea junto con ESTIA y Azaro Fundazioa–, Agricultura, Industria de los Alimentos y Turismo.

## Un total de trece chefs participaron en el Culinary Zinema 2017

LA SÉPTIMA EDICIÓN DE CULINARY ZINEMA, LA SECCIÓN DEL FESTIVAL DE CINE DE SAN SEBASTIÁN QUE ASOCIA CINE Y GASTRONOMÍA, SE CELEBRÓ ENTRE EL 23 Y EL 29 DE SEPTIEMBRE Y CONTÓ CON UN TOTAL DE TRECE CHEFS DE REFERENCIA INTERNACIONAL.



Los chef Elena Arzak, Kamilla Seidler y Alain Weissberger

**Basque Culinary Center - Facultad de Ciencias Gastronómicas |** La sección oficial Culinary Zinema, organizada por Basque Culinary Center y el Festival de Cine de San Sebastián, contó con siete cenas ligadas a siete producciones cinematográficas inspiradas en la gastronomía de países como Alemania, Argentina, Dinamarca, España, Estados Unidos, Estonia, Israel, Italia, Japón y Reino Unido.

Entre las cenas que se ofrecieron en Basque Culinary Center tras las proyecciones, destacó la asociada a la película de inauguración 'Estrellas Michelin - Historias de las cocinas', film que habla sobre la Guía Michelin en la era dorada de la gastronomía. Esta cena fue a cargo de tres pesos pesados de la gastronomía como son Elena Arzak, chef del restaurante Arzak; Kamilla Seidler, chef del restaurante Gustu de Bolivia y Alain Weissberger, chef del restaurante Taubenkobel de Austria.

El film y opera prima 'The Cakemaker', coproducción entre Alemania e Israel, contó con una cena muy especial de la mano del chef del restaurante Mishiguene, Tomás Kalika, que junto a Mikel Gallo, chef del restaurante Ni Neu de San Sebastián, ofrecieron cocina israelí de vanguardia.

Por su parte, 'Constructing Albert', película que sigue los pasos del genio creativo que es Albert Adrià, contó con un homenaje culinario de la mano de tres chefs vascos tales como Rubén Trincado, del Restaurante Mirador de Ulía; Daniel López del Restaurante Kokotxa y Kepa Txapartegi, del Restaurante Alameda.

La cocina de Asia estuvo representada por los chefs japoneses Mutsuo Kowaki y Osamu Tomita, que diseñaron experiencias culinarias en torno al Bento y el Ramen, respectivamente.



Alumno de La Escuela Politécnica Superior trabajando en el proyecto.

## La Escuela Politécnica Superior lidera el nodo de FP 'Fabrica Digital y Conectada'

EL OBJETIVO DE ESTOS NODOS ES QUE LOS DOCENTES DE CICLOS FORMATIVOS DE GRADO SUPERIOR TRABAJEN LOS CONOCIMIENTOS EN ESTAS ÁREAS POR MEDIO DE PROYECTOS EN COLABORACIÓN CON LAS EMPRESAS.

**Escuela Politécnica Superior |** En el marco de la estrategia Basque Industry 4.0 y con el impulso de la Viceconsejería de Formación Profesional del Gobierno Vasco, se ha puesto en marcha un plan ordenado de actuaciones orientado a dar respuesta en el medio y largo plazo a las prioridades de desarrollo del talento establecidas por los sectores industriales tractores en Euskadi para incrementar su competitividad y aprovechar las oportunidades futuras que se presentan. En esta línea, se han definido 4 nodos o áreas estratégicas de trabajo en torno a la fabricación avanzada, la energía, las biociencias y la fábrica digital y conectada, este último liderado por la Escuela Politécnica Superior de Mondragon Unibertsitatea.

> Se han definido 4 nodos o áreas estratégicas de trabajo en torno a la fabricación avanzada, la energía, las biociencias y la fábrica digital y conectada.

### Proyectos en colaboración con las empresas

El objetivo de estos nodos es que los docentes de Ciclos Formativos de Grado Superior trabajen los conocimientos en estas áreas por medio de proyectos en colaboración con las empresas, para incorporarlo posteriormente al contenido de las titulaciones y, así, poder contar en Euskadi con las personas capaces de llevar a cabo la Estrategia de Fabricación Avanzada 2020 fijada en la Iniciativa Estagética "IE3. Red de Capacitación Inteligente".

### 5 proyectos en marcha durante el curso 2016-2017

El Nodo de Fabrica Digital y Conectada, liderado por la Escuela Politécnica Superior de Mondragon Unibertsitatea, y en el que también participan Maristas (Durango), la Escuela de Armería (Elgoibar) y Tartanga (Erandio), ha puesto en marcha 5 proyectos durante el curso 2016-17, de los cuales la Escuela Politécnica Superior lidera 3 en el ámbito de la Automatización: Monitorización de Procesos de Estampación (junto con Maristas), Monitorización de Procesos de Soldadura (junto con Goierri LH) y Robotica Colaborativa (junto con Txorierri).



"Ahozko komunikazioa lantzeko eta jende aurreko komunikazioa garatzeko oso aukera ona zelako animatu ginen".

Iñigo Otaegi

# Iñigo Otaegi, txapelketako hizlari onena

IRAILEAN JOKATU ZEN EUSKADIKO BOSGARREN EZTABAIDA TXAPELKETA EUSKO LEGEBILTZARREAN. MONDRAGON UNIBERTSITATEKO, EHU-KO, DEUSTUKO, UPN-AKO ETA NAFARROAKO UNIBERTSITATEKO TALDEAK ARITU ZIREN NOR BAINO NOR.

Eta taldeka irabazteko aukerarik izan ez bazuten ere, Iñigo Otaegi villabonarrak, Mondragon Unibertsitateko ikasleak, txapelketako hizlari onenaren saria eskuratu zuen. Iñigorekin ordu erdi egotea nahikoa da jabetzeko hizlari ona dela, ahozko eta jende aurreko komunikazioan abilezia berezia duela eta gaiak argumentatzen ere, taldean batik bat, eskarmentu handia duela. Bertsozalea, egunkariak irakurtzea du gustuko. Betiko kazetaritzaren zale eta 'Tolosaldeko Ataria'-ko kolaboratzaile ere bada. Ikus-entzunezko komunikazioko laugarren mailan dago Otaegi.

**Nola sortu zen txapelketan parte-hartzeko ideia?** Andres Gostin irakasleak gonbita egin zigun. Ahozko komunikazioa lantzeko eta jende aurreko komunikazioa garatzeko oso aukera ona zela esan zigun eta animatu egin ginen.

**Nolako esperientzia izan zen?** Oso esperientzia dotorea izan zen. Taldeka final-aurretan kanporatu gintuzten eta bakarka hizlari onenaren saria eskuratu nuen. Ez nuen saririk espero baina nire taldeko lehena izan nintzen hitza hartzen, diskurtsoaren hasierako zatia egin nuen eta oso gustura sentitu nintzen. Hasierako urduritasuna gainditu eta hazi egin nintzen, harrotu egin nintzen zentzu onean.

**Legebiltzarrean, Legebiltzarreko presidente den Bakartxo Tejeriaren aurrean, maila handiko hizlariekin lehiatzen... ez zen samurra izango.** Gaia bera ez zen samurra. Haurren txertoak, bermeak, guraso zein osasun publikoaren ardurak... Beste unibertsitateetako ordezkariekin alderatuta, gu komunikaziokoak gara eta ikuspegi komunikatibo hobea izan dezakegu. Nik uste probetxua atera geniola horri.

**Zein da lehiaketaren planteamendua?** Fase ezberdinak izaten dira: sarrera, argudio fasea eta ondorioa. Denbora neurtua izaten da, minutu gutxi azalpenak emateko eta denboraz kanpo luzatuz gero edo motz geratuz gero, penalizazioak izaten dira.

**Eta aurretiko prestakuntza?** Egia esan, txapelketa baino aste bat lehenago Legebiltzarrean bertan beste saio bat izan zen, eta guk ez genuen aukerarik izan bertaratzeko. Saio hartara gerturatu ziren beste unibertsitateetako ordezkariek informazio asko jaso zuten eta, agian, guk baino hobeto prestatu zuten saioa. Guk, berriz, zertxobait gehiago inprobisatu behar izan genuen, baina arlo hori garatzea ere inportantea da.

**Berriro lehiaketan parte-hartzeko prest?** Ni dagoeneko Graduko azken urtean nago eta datorren urtean ezingo naiz bueltatu, baina oso esperientzia aberatsa izan da. Beste unibertsitate batetik agian deituko digute, liga bat egingo baitute. Eztabaidatzea, gai konkretuen inguruan gogoeta egitea... asko gustatu zaigu. Oso esperientzia positiboa izan da.

## Zerga heziketako mintegia

**Enpresagintza Fakultatea |** Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, Zerga heziketako mintegia garatzen dihardu Enpresagintzak, Oñatiko eta Bidasoako campusetan. Mintegiaren helburua da sektore publikoa eta zerga sistema unibertsitate zein Lanbide Heziketako ikasleei gerturatzea. Mintegia batez ere myGADE eta heziketa zikloetako ikasleei zuzenduta egon arren, interesa duen edonor gerturatu ahal izan da saioetara.

Lehen saioa Euskal sektore publikoari zuzendutakoa izan da; irailaren 25ean Oñatin landu zuten eta urriaren 2an, berriz, Irunen. Zerga eta Finantza Politikako zuzendari nagusi Bittori Zabalak eta Erakundeekiko Konpromisoen zerbitzu buru Xabier Gaztelumendik administrazio desberdinek arlo fiskalean dituzten eskumenak azaldu zituzten.

Gero, urriaren 9an (Oñatin) eta 17an (Irunen) Gipuzkoako Foru Aldundiaren Zerga sistema landu zuten. Ogasuneko zuzendari nagusi Jokin Peronak eta Zerga Kudeaketarako zuzendariorde nagusi Yolanda Dominguezek Aldundiaren estrategia eta zerga sistema azaldu zituzten.

Azkenik, azaroaren 27an, Gipuzkoako Foru Ogasunaren funtzionamendua izango dute aztergai Aldundian bertan egingo duten saioan. Ikuskaritzako zuzendariorde nagusi Coro Pereirok eta Erakundeekiko Konpromisoen atalburu Joxean Lepeira izango dituzte hizlari.



Euskal sektore publikoari zuzendutako saioa.

Plotina proiektua

# “Benetako berdintasunaren bila”

EUROPAKO BEDERATZI ERAKUNDE ARI DIRA H2020 PROGRAMAREN BAITAN PLOTINA PROEIKTUA GARATZEN. HORIEN ARTEAN; UNIBERTSITATEAK, BERRIKUNTZA GUNEAK, AHOLKULARITZA ENPRESAK ETA KOMUNIKAZIO AGENTZIAK DAUDE. BERDINTASUNAREN ARLOKO PROIEKTUA DA PLOTINA ETA 2016TIK 2020RA BITARTEAN GARATU BEHARKO DUTE. MONDRAGON UNIBERTSITATEAK DAGOENEKO EGIN DU BERE DIAGNOSTIKOA ETA IKASTURTE HONETARAKO LEHENENGO EKINTZAK ZERRENDATU DITU BERDINTASUNA SUSTATZEKO. PLOTINAREN AZKEN HELBURUA DA GOI MAILAKO HEZKUNTZA, IKERKETA ETA BERRIKUNTZAN BERDINTASUN POLITIKAK TXERTATZEA.

Plotina hitzak kuriositatea eragin dit. Sustatzaileekin proiektuaren inguruan luze eta zabal hitz egin ondoren, Plotina hitzaren esanahiaren inguruko galderak egin dizkiot nire buruari. Zein esanahia dauka hitz horrek? Bulegora etorrita, Wikipedian galdeketa arina egin dut eta hara, lehenengo emaitza: **Pompeya Plotina** (latinez: *Pompeia Plotina*) Trajanoren emaztea, inperioaren tronora iritsi zena Trajanorekin ezkondu ondoren eta Erromara sartu zenean enperadorearen alboan izan zena. Emakume intelektuala, borondate onekoa eta atsegina. Berdintasunaren gaineko proiektuaren izenaren aukeraketak agian ez du zerikusirik enperadore erromatarraren emaztearen izenarekin, baina emakume hark garrantzia izan bazuen Erroman, Plotinak sustatu gura duena da emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna hezkuntzan, ikerketa eta berrikuntzan. Sistema eta prozesuak sustatu nahi ditu, protokoloak eragin, berdintasuna ikerketa eta goi mailako hezkuntza erakundeetako arlo guztietan txertatu dadin.

Mondragon Unibertsitateak ere jarrera aktiboa izango du bederatzi erakundek eratu duten kontsortzioan, eta unibertsitate barruan eratu da talde bat proiektua bideratzeko. Iñigo Zendegi eta Arantxa Gonzalez de Heredia, Goi Eskola Politeknikokoak; Ainhoa Larrañaga HUHEZIkoa; eta Susana Azpilikueta eta Idoia Peñakoba errektoradutzako ordezkariak batu ditugu mahaiaren bueltan Plotina proiektuaren inguruan jarduteko. Eurak baitira proiektua garatzeko ardura dutenak, beste askorekin batera.

**Europako proiektua berdintasunaren arloan**

Europar komisioaren H2020 programaren baitan kokatzen da berdintasuna sustatzeko helburua duen Plotina proiektua, lau urteren bueltan garatuko dena. 2016ko otsailean abiatu zen eta 48 hilabeteko iraupena izango du. Mondragon Unibertsitatea da proiektua garatzeko ardura duen erakundeetako bat, Italiako, Britania Handiko, Esloveniako, Portugaleko eta Turkiako beste bost unibertsitaterekin batera. Gainera, Elhuyar aholkularitza enpresak ere parte hartzen du kontsortzioan eta Italiako *Centro Studi Progetto Donna* erakundeak eta Austriako Zentrum ebaluatzaileak ere. Plotinak bi asmo nagusi ditu; batetik garatu nahi du proiektuko erakunde bakoitzari egokitutako berdintasun plana eta horiek garatzeko tresna ezberdinen diseinua; eta aldi berean, eredua sortu nahi da, bermea eskainiko duen eredua. Beste edozein goi mailako hezkuntza eta ikerkuntza erakunde publiko zein pribatuk etorkizunean aplikatu ahal izango duena.

**Emakume ikerlariak**

Baina, gainera, Plotinak asmo konkretuagoak ere baditu. Besteak beste, emakume ikerlarien profila sustatu nahi du. “Gure unibertsitateko fakultate batzuetan graduatu asko emakumeak dira, gaur egun gizonezkoak baino gehiago, baita masterra egiten dutenak ere eta doktore tesiak burutzen dituztenak, baina ondoren, familia kontziliazioa dela eta, emakumeek haurren zaintzaren ardura hartzen dute eta ikerlari ibilbidea eta orohar ibilbide profesionala gehiago garatzen dutenen artean gehienak gizonezkoak dira”. Goi Eskola Politeknikoan ere, graduatzen diren emakumeak %38 izan arren, portzentaje hori txikitzen doa goi mailetara mugitu

**PROIEKTUA GARATZEKO EPEA**
48 hilabete
2016 - 2020.

**PLOTINA KONTSORTZIOA**
5 Unibertsitate
2 Aholkularitza enpresa
1 Ebaluazio enpresa
1 Komunikazio enpresa

**BERDINTASUNAREN DIAGNOSTIKOA**
3 Fakultate
24 Elkarrizketa
6 Mintegi / 38 parte-hartzaile
1 Galdeketa / 165 pertsona

**JARDUNALDIAK AZAROAN**
Azaroan 2 jardunaldi:
Irekia eta Unibertsitate mailakoa




PLOTINA TALDEKO KIDEAK
Idoia Peñakoba, Susana Azpilikueta, Iñigo Zendegi, Ainhoa Larrañaga eta Arantxa Gonzalez de Heredia.




> Mondragon Unibertsitateak ere jarrera aktiboa izango du bederatzi erakundek eratu duten kontsortzioan, eta unibertsitate barruan eratu da talde bat proiektua bideratzeko.

ahala. Gure gizartea eta kultura dira aldatu beharrekoak Plotina proiektuko sustatzaileen esanetan. “Kultura eta gizartea aldatu behar dira eta unibertsitateak ere badauka horretan erantzukizuna. Unibertsitate bezala eredu eta eragile izan behar dugu gizartea eraldatzen. Gizartearen eraldaketa etorriko da, neurri handi baten, hezkuntzaren eraldaketatik. Kultura aldaketa sustatu behar dugu” eta hori da hain justu ere Plotinarekin sustatu nahi dena.

**Eredu Europan**

Plotinak eredu bilakatu nahi du Europan. Eta eredu horrek tresnak eskaini beharko ditu berdintasuna benetakoa izan dadin. Azken finean, plotina berdintasun plan luze bat da, Mondragon Unibertsitateak garatuko duena beste aktore guztiekin batera. Hala, Mondragon Unibertsitateak lehenengo pausuak eman ditu eta dagoeneko burutu du diagnostikoa, kuantitatibo zein kualitatiboa. Diagnostikoak egiteko tresna potenteak erabili dira, Plotina kontsortzioak berak diseinatutakoak, eta beste zenbait ekintza ere burutu dira, diagnostiko egokia eta abiapuntu ona izateko.

Ikerketa horiek hiru fakultatetan burutu dira, Goi Eskola Politeknikoan, Enpresagintza Fakultatean eta Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean eta guztira 24 elkarrizketa egin dira eta sei mintegi non 38 lagunek parte-hartu duten. Horien artean, irakasleak, ikasleak, ikerlariak eta administrazioko langileak izan dira. Galdeketa bat ere egin da eta 165 erantzun jaso dira. “Datuak oso interesgarriak dira eta lanaren emaitzak ere esanguratsuak. Gizonezkoen artean berdintasunaren egoeraren inguruko pertzepzioa baikorragoa bada ere, emakumezkoen iritziz asko dago hobetzeko eta lan asko egiteko”.

**Azaroan jardunaldiak**

Azaroan fakultate guztietako zuzendaritzako eta kontseilu errektoreko kideek berdintasunaren gaineko sentsibilizazio saio batean parte hartuko dute. Ekimenaren inguruan ari direnentzat, “benetan hito bat da. Inoizko kuorum eta parte-hartze handiena izango da eta gaia berdintasuna izanik, oso pozik gaude”. Era berean, azaroaren 28an beste jardunaldi bat egingo da, Elhuyarrekin batera, sexu jazarpena eta hezkuntza izenekoa. Bigarren jardunaldia irekia izango da eta nahi duen debagoiendar orok parte-hartu ahal izango du.

**2017-2018 ikasturteko ekintzen zerrenda**

Planifikazioa lau urtera begirakoa da, baina urtero-urtero zenbait helburu konkretu gauzatu nahi dira Mondragon Unibertsitatean. Hala, aurten bulego bat eta espazio birtual bat martxan jarriko dira, nahi duenak berdintasunaren arloko gaiak kontsulta ditzan. Gainera, sexu jazarpenaren gaineko prebentzioa eskainiko da ikastaro baten bitartez. Era berean, garrantzitsua izango da ekintza plana gauzatu ahal izateko zuzendaritza kontzientziatuta egotea, eta proiektuari baliabide ekonomiko eta giza baliabideak eskaintzea. Kontratazio prozesuetan parte-hartzen duten pertsonek berdintasunean formazioa jasoko dute, diskriminazioak ekiditeko, joera inkontzienteak saihesteko. Aurtengo ikasturtean, era berean, praktika onak partekatu eta eredu onak sustatuko dira. Eta Kontziliazioari buruzko informazioa eskaintzeko puntu bat sortuko da, birtuala izango dena. “Jendeak horrelako zalantzak dituenean ez daki norengana jo. Askotan joaten dira pertsonen gestioko arduradunengana, beste batzuk zuzendaritzara... Horren inguruan ere protokolo bat sortu nahi da”.

> azaroaren 28an jardunaldi bat egingo da, Elhuyarrekin batera, ‘Sexu jazarpena eta hezkuntza’ izenekoa”.

**Etorkizunean akzio gehiago**

Etorkizunera begira, sentsibilizazio eta formazioaz gain, baliabideak sortu nahi dira, behar ezberdinak dituztenei soluzioak eskaintzeko. Plotina plan transbertsala edo zeharkakoa da eta arlo ezberdinak hartzen ditu bere baitan: erakundea – erabaki organuak-, kontratazioa eta ibilbide profesionalaren progresioa, kontziliazioa, eta genero eta sexu perspektibaren txertaketa ikerkuntza eta irakaskuntza curriculumean. Arlo horietan guztietan berdintasuna da sustatu nahi dena.

**Konklusioak**

Lehenengo pausuak emanda, Plotina proiektuko sustatzaileek argi dute asko dagoela egiteko eta gehiago hobetzeko. “Kooperatiba gara eta berdintasunean hezi eta hazi bagara ere, asko dugu hobetzeko” diote aho batez. Prozesua bera, pedagogikoa izaten ari da eta dagoeneko ikasi duguna da “Genero perspektiba hartu behar dela arlo guztietan. Eta hare gehiago, ez ote genuke arima femeninoa izango duen unibertsitaterantz urratsak eman beharko? ”.

> Kooperatiba gara eta berdintasunean hezi eta hazi bagara ere, asko dugu hobetzeko”.

# Unibertsitateak: isla eta irla

**Elhuyar**
Aizpea Goenaga eta Naiara Arri



Gizarteko beste hainbat esparrutan gertatzen den bezala, nahi genukeen eta dugun unibertsitate-sistemaren artean bada arrakalarik. Izan ere, Anari gogora ekarriz, unibertsitateak ez baitira irla, daukagun gizartearen isla fidela baizik. Eta, batetik bestera egon daitezkeen aldeak bazter utzi eta gutxietsi gabe, ez dira gutxi unibertsitatearen eremuan agerian geratu ohi diren desberdintasunak; unibertsitateak eta hezkuntza-sistemak, oro har, gizarte desberdintasunak eta arrakalak gainditzeko dituen mugak eta ezintasunak agerian utziz.

Emakume eta gizonen arteko desberdintasunei erreparatuta, unibertsitate-esparruan oso nabarmenak dira desberdintasun hauek: ikasketen araberako segregazioa edo banaketa (irakasleei nahiz ikasleei dagokienez); karrera profesionalean gora egin ahala, emakumeen presentzia gutxitzea edo bakantzea; sozialki eta mediatikoki erreferentziazkoak diren irakasleen artean gizonezkoak nagusitzea; erabaki-organoetan eta ardura-postuetan gizonezkoak gainordezkatuta egotea; edota, edukietan eta laneko metodologiatan genero-ikuspegirik eza edota ikerketa feministek egin dituzten ekarpenen aitortza txikia.

Unibertsitateak irla ez direlako, ez dira indarkeria matxistaren adierazpenik gabeko eremuak: ez dira langileen arteko edo irakasle-ikasleen arteko sexu-jazarpenik gabeko eremuak; ikasleen arteko eraso matxista edo jazarpenik gabeko eremuak; sexu-orientazioan edo genero-identitatean oinarrituriko fobiak adierazten ez diren eremuak; edota, iruzkin sexistarik gabeak. Baina, isla izateaz gainera, zalantza dugu ikuspegi honetatik irla ere ez ote diren. Zalantza daukagu unibertsitate-sisteman zer gertatzen ari den ezagutzen ote dugun; unibertsitateko komunitatea osatzen duten kolektibo eta talde desberdinen artean unibertsitateko desberdintasunak gogoeta-gai diren; eta, beraz, gizartea bera horretaz jabetzen ote den. Zalantza egiten dugu ez ote dagoen unibertsitatea, jende jantzi eta hezia pilatzen den eremu hori, horrelakoetatik salbuetsita dagoen aurreiritzia. Unibertsitatean, azalari erantsita daramagun sexismoaz gainera, hierarkia dago, lehia dago, klasea dago... botere-harremanak daude.

> *Urtero Emakundek antolatzen duen Berdintasun Foroa gai honi heltzeko aukera paregabea iruditu zaigu eta horregatik antolatu dugu azaroaren 28an jardunaldia*

*Emakume eta gizonen berdintasun eragingarrirako* Espainiako 3/2007 lege organikoak era guztietako lantokietan sexu-jazarpenari eta sexuagatiko jazarpenari aurre egiteko protokolo bat lantzeko derrigortasuna jasotzen du. EAEko 2005eko *Emakume eta gizonen berdintasunerako legeak*, berriz, sexu-jazarpenik eta sexuagatiko jazarpenik gabeko lan-esparruak bermatzeko neurriak hartzera behartzen du. Gure inguruko eta ez hain hurbileko unibertsitateek landu dituzte azken urteetan errealitate horri erantzuteko protokoloak, horietako asko, logikoa denez, lan-harremanetik harago doazen egoerak aurreikusiz.

Protokolo horiek, batez ere, horrelako egoerak gertatzen direnean ahalik eta ongien erantzuteko ikuspegiarekin landuta daude. Gogoan izango duzue, adibidez, pasa den ekainean EHUko Leioako campusean ikasle bati ikaskideak jazartzeagatik zabaldu zitzaion espedientea eta campusera sartzeko ezarri zitzaion debekua.

Protokoloetatik harago doazen bestelako ekimen batzuk ere jarri dira martxan, besteak beste, prebentzioan eta detekzioan arreta jartzen dutenak. Horren adibide izan daitezke EHUko USV React egitasmoa edo Granadako Unibertsitate Publikoak duela gutxi onartu duen protokoloan jaso duen asmoa, prebentziorako eta arreta emateko bulego bat zabaltzea proposatzen duena, Harvard unibertsitateko ereduari jarraituz.

PLOTINA egitasmoak aukera bat ere behar luke izan Mondragon Unibertsitateak eta proiektuko gainerako unibertsitateek ahalik eta protokolorik eraginkorrenak landu ditzaten. Eta, horretarako, behar beharrezkoa da esperientzia desberdinak ezagutu, orain arte egindako bidearen indarguneak eta ahuleziak agerian jarri eta gaiari bere konplexutasunean heltzeko espazioak zabaltzea. Urtero Emakundek antolatzen duen Berdintasun Foroa gai honi heltzeko aukera paregabea iruditu zaigu eta horregatik antolatu dugu azaroaren 28an jardunaldia, hemen aipaturiko hainbat kontutan sakondu eta beste batzuen gainean gogoeta egiteko. Eskoriatzan da zita eta gonbidatuta zaudete.




# "La atracción de personas con talento es un elemento clave para la propia competitividad de las empresas"

**Mikel Mesonero**

**Coordinador de Generación y Desarrollo de Talento en Gestión en la facultad de Enpresagintza**

MIKEL MESONERO (URRETXU), 44 AÑOS. DOCTOR EN ECONOMÍA DE EMPRESA, ESTUDIÓ EN ENPRESAGINTZA Y EN LA UPV, Y TRABAJA EN LA FACULTAD DE EMPRESARIALES DE MONDRAGON UNIBERTSITATEA DESDE 1997.

Mikel Mesonero es en la actualidad coordinador de Generación y Desarrollo de Talento en Gestión de la Facultad de Enpresagintza. "Desarrollamos nuestra propuesta en dos grandes ámbitos, el de el emprendimiento y el de la gestión empresarial. Por un lado queremos captar y atraer talento, y por otro queremos desarrollar talento entre trabajadores profesionales que ya están en el mundo empresarial".

**¿Cuál es la estrategia de Enpresagintza en el ámbito de la captación y atracción del talento?** Históricamente la captación y atracción de personas en las grandes empresas ha estado vinculado al departamento de Recursos Humanos. Desde Enpresagintza hemos observado que dichos departamentos están evolucionando tratando de captar el talento joven, y queremos ofrecer productos, servicios y formación en ese ámbito de la Gestión de Personas. Queremos desarrollar talento joven, para que a través de las experiencias de aprendizaje que ofrecemos sean capaces de desarrollar su carrera profesional en el ámbito de la captación y atracción de talento.

